

LITERATURA. Euskarazko literatura, saiakera eta hezkuntza-liburua indartu ditu batez ere sortu zenez geroztik

Erein, jorratu, bildu eta eman

Donostiako Kursaal jauregian egingo den ekitaldi batez ospatuko ditu Erein argitaletxeak, gaur, Zilarrezko Ezteiak



PABLO S. QUIZA

Erein argitaletxeko langileak, Donostiako Ibaeta auzoan duten egoitzan.

Juan Luis Zabala | **DONOSTIA**

Jose Manuel Castells, Xabier Lete, Anjel Lertxundi, Julen Lizundia, Edorta Kortadi, Jesus Mari Mujika eta Axentzio Ondartzabalek sortu zuten Erein argitaletxea, 1976an, duela 25 urte. Zilarrezko Ezteiak ospatzeko, ekitaldi bat antolatu dute, gaur, Donostiako Kursaallean, 19:00etatik aurrera.

«Ezer ez da ezerezetik sortzen gizartean, guztia izaten da

nolabait aurreko zerbaiten jarraipena», adierazi du Jesus Mari Mujikak, Erein argitaletxeko Administrazio Kontseiluko lehendakariak, garai hartako oroitzenak berritzeko eskatutakoan. «1976a garai sortzailea izan zen, 40 urteko diktadura baten bukaera zenez gero, baina lehendik lan isil bat zegoen egin: irakaskuntza munduko batzuek egindakoa, lehendik sortutako argitaletxeek (Etor, Gero...) eta abar...».

«Garai hartan talde politiko baten inguruan genbiltzanok konbentzimendu nagusi bat genuen», oroitu du Mujikak. «Euskal Herrian edozein eraikuntza politiko herren geldituko zela kultura mailako proiektu sendo bat lantzen ez bazen. Talde politiko haren inguruan genbiltzan batzuek pentsatu genuen euskal kulturaren aldeko ahalegin bat egin behar zela».

Elkarte anonimoa sortu, bazkideak bilatu, dirua bildu eta,

«borondate on askorekin eta militantzia dezenterekin», argitaletxea sortzeari ekin zioten orduan, 1976an, arestian aipatutako zazpi lagunek. «Ereiteko garaia zela iruditzen zitzaigunez, Erein jarrai genion izena».

Gizarte bakar baterantz, sakabanaketa giroa baztertuta

«Ordurako, nolako euskal kultura nahi genuen ere zehaztuta genuen, edo bagenituen horren inguruko ideia batzuk behin-

tzat», dio Mujikak. «Kultura irekia, modernoa, kritikoa, sortzailea eta plurala garatu nahi genuen, sentsibiltate eta hizkuntza ezberdineko jendea onartuko zuena, baina denekin gizarte bakar baterantz, sakabanatze giroak alde batera utzita».

«Sentsibiltate ezberdinetara irekitako gizarte plural bat egingo bada, aurrenik bertako sentsibiltateak ezagutu behar dira», Mujikaren iritziz, «norbe-

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAN EREINDAKO 10 MUGARRI




'ILARGIAREN ESKOLAN'
(Juan Mari Lekuona, 1979)

Ereinen Literatura bildumako lehen liburua izan zen *Ilargiaren eskolan*. XX. mendeko euskal poetarik handienetako batek zabaldu zuen, beraz, gero hainbeste liburu garrantzitsu plazaratuko zituen saila. Luis Mari Mujikak idatzitako hitzaurrea zuen Lekuona-ren liburua.



'AISE EMAN ZENIDAN ESKUA'
(Anjel Lertxundi, 1980)

Hunik arrats arrotean (Lur, 1970) eta *Goiko Kale* (Gero, 1973) ipuin bildumen ostean, *Aise eman zenidan eskua*-rekin euskal ipuingintza modernoari bidea zabaltzen jarraitu zuen Lertxundik. Ondorengo urteetan ere liburu garrantzitsu ugari kaleratuko zuen Lertxundik Ereinen eskutik.



'MANTAL URDINA'
(Martin Ugalde, 1984).

1969an Venezuelatik itzulita, euskaraz idazteko asmoari heldu zion Ugaldek. Ahalegin horretan lehena ez izan arren, *Mantal urdina* urrats garrantzitsua izan zen, fruitu umoa. 1985ean Ugalde-ren *Hiltzaileak* kaleratuko zuen Ereinek (egileak 1961ean Venezuelan kaleratutako *Itzalleak*-en euskara batuko moldapena).



'POLIEDROAREN HOSTOAK'
(Joan Mari Irigoien, 1982)

Oilararren promesa nobelaren ondoren (Gero, 1976), askoz ere nobela mardul eta beteagoa eman zuen argitara Irigoienek, garai hartako narratiban oso erreferentzia garrantzitsua izan zena, guztiz saihestezina. Irigoienek narratiban, liburu «fundazionala» izan zen, adituen ustez.



'POEMA BILDUMA'
(Mikel Lasak, 1984)

1971n arreba Amaiarekin batera kaleratu zuen *Poema bilduma* Mikel Lasak. Ereinekin bakarkako lana kaleratu zuen, zazpi urte geroago. Garaiko euskal poesiarekin hautsiz, Europako poesiaren oihartzuna eta moralitasunaren zamarik gabeko sentsualtasun fin bat erakusten dute Lasaren poemak.